

METODOLOGIA-FITXA

MUGIKORTASUN INKESTA (010930)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Mugikortasun inkesta.

“Laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta” (010930) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnen mugikortasuna kuantifikatzea, joan-etorriak nolakoak diren eta hauek zergatik egiten diren azaltzea helburu duen estatistika eragiketa da.

Eragiketaren izendapena:	Mugikortasun inkesta
Eragiketa-kodea:	010930 (Euskal Estatistika-Plana)
Erakunde arduraduna:	Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila
Gai-eremua:	Zerbitzu-sektorea
Maiztasuna:	Bost urtekoa
Eragiketa-mota:	Laginketa bidezko inkesta
Metodologia datuen jatorriaren arabera:	Oinarrizko datuak zuzenean bilduko dira, galde-sorta berariazkoen bidez

Helburuak

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen mugikortasuna, igarotze-fluxuak, moduak eta joan-etorriak egiteko motibazioak eta arrazoiak neurtzea.

EAEko biztanleen mugikortasunaren eskariaren ezaguera hobetzea. Horretarako, lanegunetan (astelehenetik ostegunera) egindako joan-etorriak neurtuko dira, 5 minutu baino gutxiagoko joan-etorriak kanpo utzita.

Ikertu beharreko aldagai nagusiak

- . Joan-etorri kopurua
- . Joan-etorriaren jatorria eta norakoa
- . Joan-etorrien etapak
- . Erabilitako garraio bideak
- . Joan-etorriak egiteko arrazoiak

Eragiketaren esparrua

Populazio-eremua:

Euskal Autonomia Erkidegoko 7 urte eta gehiagoko populazioa familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Geografia-eremua:

Eragiketaren esparruak Euskal Autonomia Erkidego osoa hartzen du. Estratifikazio geografikoa zehazteko EUSTATEko 20 eskualdeak gehi Lurralde Historikoetako hiru hiriburuak hartu ditugu.

Denbora-eremua:

Mugikortasun inkestaren denborazko erreferentzia bost urtekoa izango da, bai datuak biltzeko bai datu horiek zabaltzeko.

Galde-sortak

[Galde-sorta](#)

Hedatzea

- Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.
- Internet: Taula estatistikoak Eustat. <http://www.eustat.es>